


Azken urteotan Euskal Herriko fauna sailaren barruan, lurralde honetako animalia-espezie askori buruzko informazioa zabaldu dugu *Elhuyar. Zientzia eta Teknika* aldizkarian. Dena den, oso arrunta izanik ere, bada orain arte azaldu ez den eta berebiziko garrantzia duen espeziea. Zein baina?

## Zutik ibiltzen den ugaztun bilutsia

Migel Mari Elosegí\*



### FITXA TEKNIKOA

#### Gaurko gizakia

**Espeziea:** *Homo sapiens sapiens*  
**Familia:** hominidoa  
**Ordena:** primataek  
**Klasea:** ugaztunak

**D**emagun planeta honetik kanpoko izakiren bat Lurrera, edo nahi baldin badugu, Euskal Herrira iristen dela. Batere animaliarik topatuko ote luke? Zein da gure lurraldean, kostaldetik goi-mendietaraino, basoetatik Bardeetako basamorturaino, beti topa daitekeen animalia? Noski, irakurle, zeroribera: gizakia. Eta jakina, mundu

osoan beste hainbeste gertatzen da. Gizakia -50 eta +50 gradu bertako tenperaturak dituzten lekuetara egokitu da: itsas mailatik 5.000 metroko altuerara eta basamortuetatik oihanetara, eta leku gutxitan ibil gintezke planeta honetan gizakirik edota berak utzitako arrasto edo seinalerik ikusi gabe. Harrigarria, asmatzaila, txikitzailea, ..., nahi bezala deskriba gene-

zake gizakia, baina nahi edo ez, bazuetan ahaztu egiten bazaigu ere, animalia da.

Gizakiak, ugaztunak, ilez jantzitako ornodunak dira; Hominidoen familiako eta Homo generoko primataek. Adimena, mintzaira artikulatua, bolumen handiko zerebroa, esku oratzaileak eta jarrera zutitua izan daitezke hauen ezaugarri bereziak. Dirudienez, gizakien arbasoak tximinoen antza zuten Afrikako oihanetako animaliak ziren. Duela 3,5 milioi urte primate hauek basoetatik paisaje irekietara pasa ziren eta garrantzi handia izan zuen aldaketa burutu zuten: jarrera zutitua hartu zuten, alegia. Gero, arbaso haiek Afrikatik beste lurraldeetara zabalitzen hasi ziren eta kultura edo ingurunea aldatzeko gaitasunari esker, guztietan egokitu ziren. Euskal Herrian, esate baterako, 150.000 urte ingurukoak dira aurkitu diren giza aztarnarik zaharrenak.

Milaka urtetako eboluzioaren ondorioa gaur egungo gizakia (*Homo sapiens sapiens*) da eta egia esan, espezie hau bereiztea ez da zaila. Ile gutxiko ugaztuna da, ia bilutsia, eta bi hanketan ibiltzen da. Ezaugarri hauekin ia ezinezkoa da beste espezie batekin nahastea. Arra eta emea azterketa genitalaren bidez bereiz daitezke ondoen, baina oro har, arra sendoagoa izateagatik eta emea gorputz biribiltuagoa izateagatik bereizten dira. Neurriari dagokionez, gainerako animaliak mutu-

Artzantza eta nekazaritzaren aurkikuntzen ondoren, gizakion bizimodua guztiz aldatu zen. Argazkian Nafarroako baserritarra.

M.M. Elosegí





M.M. Elosegi



**Herrialde aurreratuenetan jaiotze-tasagero eta baxuagoa da. Euskal Herrian ere gero eta ume gutxiago jaiotzen ari dira.**

rretik isatsera neurtzen baldin badi-tugu ere, gizakien luzera, zutik ibil-tzen direnez, burutik oinetaraino-koa kontsideratuko dugu. Honela, bada, emeek 160 cm inguruko luze-  
ra eta 60 kilogramoko pisua dute batezbeste eta arrek zertxobait gehiago, 175 cm eta 75 bat kilo. Ko-  
lorea, berriz, zuria da nagusi ingu-  
ruotan, baina aldakorra izan daiteke eskualdearen arabera. Dena den, gero eta errazago mugitzeko auke-  
rak giza talde desberdinen arteko nahasketa areagotu du eta homoge-  
neizazioa ekar lezake etorkizunean. Gizakiak omniboroak dira, deneta-  
tik jaten duten ugaztunak. Oportu-  
nista tipikoak, lekuan lekuko elika-  
gaietara ezin hobe moldatu dira. Arbasoak, ziurrenik, ehiztari eta fruitu-biltzaileak izan ziren eta haien dietaren ehuneko handia animalien haragiak osatzen zuen. Gaur egun, ordea, gizakiak inoiz baino dieta zabalagoa duela esan daiteke.

Salbuespenak erraz aurki daitezke-  
en arren, gizakia egun-argitan ibil-  
tzen den animalia da eta normale-  
an atsedena hartzen du gauean. Milaka urtez, ehiza eta fruitu-bilke-  
ta izan ziren giza talde nomaden eguneko iharduera nagusiak, baina duela 10.000 urtetik hona, artzan-  
tza eta nekazaritzaren aurkikun-  
tzen ondoren, bizimodua guztiz al-  
datu zen. Iharduera hauekin pro-  
dukzio-ekonomiara pasatu zen eta lorturiko soberakinei esker, espe-  
zializazio-maila altua lortu zuen. Honela, sedentario bihurtu eta gi-  
zaki bakoitza eginkizun zehatz batez arduratzen hasi zen. Aipatutako aurkikuntza handi ho-  
riek, gaurdaino iraun duen popula-

zioaren gorakada handia eragin zuten gure planetan. Gaur egun 6 mila milioi lagun bizi da Lurrean (gehienak hiri handietan pilatuta) eta okerrrik ez bada, hazkunde honek ondorengo urteetan bere horretan segituko du. Euskal Herrian, noski, beste hainbeste gertatu da. Neolitotik, eta batez ere mende honen hasieratik, populazio-aren hazkundera handia izan da. Dena den, herrialde aurreratuetan gertatzen ari den bezala, azken aldian populazioak ez du gora egin eta 3 bat milioi lagun bizi gara gaur egun Herri honetan.

Hau ulertzeko, ordea, beharrezkoa da espeziearen ugalketa aztertzea. Ugalketa urte osoan zehar eman daiteke eta 9 hilabeteko haurdunaldiaren ondoren erditze bakoitzean

du. Dena den, baliteke etorkizuna hain samurra ez izatea. Populazio-aren gorakadak eta herrialde aurrera-  
tuetako garapen- eta kontsumo-  
mailak, beste herrialde batzuetako gizakien bizimodua eragotzen du eta, gainera, planeta honetako baliabide naturalen ustiapenak abiada handia darama. Zalantzarik gabe, iharduera guztien planifikazioa beharrezkoa izango da gure espezieak iraun dezan eta herrialde desberdinen arteko desorekak berdin daitezen. Bukatzeko bada gaineratu nahiko nukeen zeozer: hauxe da "Euskal Herriko Fauna" sailaren azken arti-

M.M. Elosegi



**Gazte-taldea hamaiketakoak egiten. Gizakia animalia omniboroa dugu.**

normalki ume bakarra jaiotzen da. Azken urteotan, herrialde aurrera-  
tuetako emakume bakoitzak bere bizitzan izandako ume-kopuruak behera egin du eta une honetan kopuru hori 1,5 umekoa da. Ume hauen ikasketa-prozesua luzea izaten da oso eta gurasoengandik banatu arte urte dexente pasatzen dira. Era berean bizi-itxaropena ere askotxo luzatu da mende gutxitan. Gaur egun, herrialde aurreratuetan 80 urte ingurukoa da, baina zoritxarrez, beste lurralde askotan 50 urtekoa besterik ez. Zalantzarik gabe, zutik ibiltzen den ugaztun honek arrakasta itzela izan

kulua. Orain arte animalia-espezie askori buruz idatzi badugu ere, guztien etorkizuna gizakion esku dago eta gure ihardueren araberrakoa izango da gure seme-alabek ezagutuko duten faunaren aberastasuna. Zoritxarrez, jadanik milaka dira ondorengo belaunaldiak ezagutuko ez dituzten animalia- eta landare-espezieak eta joera hau gero eta azkarra dela dirudi, gainera. Guztion esku dago zerbait egitea. Eskerrak eman nahi dizkiot Jesus Altunari artikulurako emandako laguntzagatik.

\* Biologia

